

Ordizian, 2009ko azaroaren 26an, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, OHIKO DEIALDIAN, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA Jose Miguel Santamaria Ezeiza jauna

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

Alejandra Iturrioz Unzueta andrea	PNV taldea
Jon Txurruka Etxezarreta jauna	PNV taldea
Belen Maiza Urrestarazu andrea	EA taldea
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE/EE /(PSOE) taldea.
Jose J. Lopez fernandez jauna	PSE/EE /(PSOE) taldea.
Monica Marañon Basarte andrea	PSE/EE /(PSOE) taldea.

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK

Miren Auzmendi Urkiola andrea	PNV taldea
Iñigo Manrique Cia jauna	PP taldea
Iban Asenjo Garde jauna	EA taldea
Mikel Leunda Semperena jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea

KONTU-HARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jauna

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra andrea

BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.2009ko urriaren 22an egindako Osoko bilkuraren akta onartzea.
..... **4. orr.**
- 2.Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna
..... **5. orr.**
- 3.Alkatetza Dekretuaren bidez onartutako kreditu aldaketen berri ematea.
..... **5. orr.**
- 4.2009-2010 ikasturtean euskara ikasteagatik diru-laguntzak emateko oinarrien hasierako onarpena.
..... **9. orr.**
- 5.Ordiziako AASSetako 12 UPABI HIEko aldaketa puntualaren hasierako onarpena.
..... **11. orr.**
- 6.21 "AGARRE" HIEko Plan Partzialaren hasierako onarpenaren berri ematea.
..... **14. orr.**
- 7.Maialen Galparsorok karguari uko egitea, jakinarazpena.
..... **15. orr.**

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK

GORABEHERAK

GALDE-ESKEAK

- .- Upabi errepideari buruzko urbanizazio faseari buruzko informazio eskaera.
..... **18. orr.**

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 8,10

BUKAERA ORDUA: 8.30

Jarraian eguneko lehen puntuaren berri eman du Batzordeburuak

1.2009ko uztailaren 24ko akta onartzea

Proposamena

2009ko uztailaren 22ko osoko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du:

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 6 (PNV 3, EA 1, PSE-EE(PSOE)2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (PSE-EE (PSOE) Marañón andreak, saioan ez izateagatik

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.

Jarraian, Batzordeburuak gai-zerrendako bigarren puntuaren berri eman du:

2.Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna

Proposamena

Azaroaren 25ean, Emakumeen aurkako indarkeriaren Nazioarteko Egunean, aurten azpimarratu nahi dugu emakumeen aurkako indarkeria batzuetan ikusten duguna baino haratago doala, seinale gehiago ere badaudela. Berriro jende gaztearengana zuzentzen gara, eta gure udalerrian indarkeria sexistaren ondorioak jasaten dituzten gaztearengana zuzendu nahi dugu kanpaina.

Aurtengo kanpainaren leloa BELDUR BARIK da. Neska gazteak ez dira beldurtuta jaiotzen, baizik eta beldurra izaten ikasten dute, horregatik baliabideak eman behar dizkiegu eta ahul egiten dituenak identifikatzen lagundu behar diegu. Pausu hau emanez, indarkeriari aurre hartzeko bidea lantzen ari gara.

Indarkeria fisikoaz gain, indarkeria sinbolikoa kontuan izatea oso garrantzitsua da: Indarkeria mota hori ez da ikusten baina horrek sortzen du beldurra emakumeengan. Indarkeria mota honen bidez gazteek emakume izateagatik edozein egoera bizi dezaketela ikasten dute.

Gure udalerrian zein beste udalerrri batzuetan, alde batera utzi ezin dugun errealitatea dugu. Zenbat aldiz, zenbat neska gazte pasa dira beste espalaira edo korrika hasi dira, beraien atzean pausuak entzunda, beldur direlako? zenbat aldiz atera behar izan dute eremu publiko batetik (taberna, metroa,), aurrean zuten mutilaren erantzunaz beldurtuta deseroso sentitu direlako zer erantzun jakin gabe edo beldurra izateagatik? Askotan, gazteek gauzak egiteari uzten diote, zinera, hondartzara, mendira, oporretara...joateari uzten diote, bakarrik joateko beldurragatik. Gure herriko zenbat neska gazte sentitu da bere bikoteak kontrolatua edo umiliatua? Zenbat neska gaztek hartzen du berea ez den jokatzeko era bat bere bikoteak behartuta? Zenbat emakume sentitzen da galduta emakume izateagatik egin behar dutena edo ez dutenagatik? Ezin dugu beste alde batera begiratu egoera honen aurrean. Beharrezkoa da gazteei biktima gehiegi izan dituen indarkeriaren aurkako jarrerak eta ekintzak aldatzeko baliabideak erakustea.

Udalak neskei ahultasunari aurre egiteko eta boterea berreskuratzeko beharrezko baliabideak eskaintzen dizkien programak sustatzeko konpromisoa hartzen du. Mutil gazteekin lana egiteko konpromisoa hartzen du portaera sexistak saihestu eta erasoen aurrean jarrera aktibo bat har dezaten.

Hori guztia kontuan izanda, Udalak

Bere eskumenen barruan eta indarrean dagoen legedia betez, emakumearen aurkako indarkeriaren kontrako udal politika aktibo, integral eta koordinatu bat bideratzeko **KONPROMISOA HARTZEN DU**, emakume gazte eta nerabeen aurkako indarkeriari arreta berezia eskainiz, hauen parte hartze aktiboa bultzatuta. Hori dela eta, Udalak neskei ahultasunari aurre egiteko eta boterea berreskuratzeko ekimenak martxan jarriko ditu eta mutilek portaera sexistak saihestu eta erasoen aurrean jarrera aktibo bat har dezaten lana egiteko konpromisoa hartzen du.

Herritarrei eta bereziki udalerriko neska-mutilei, azaroaren 25ean, Emakumeen aurkako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunean, antolatu diren ekimenetan aktiboki parte-hartzeko **DEIALDIA EGITEN** die Udalak.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jauna.

Emakumeen aurkako indarkeriaren Nazioarteko Eguna dela eta azaroaren 25ean Barrenan izandako ekintzaren berri eman du.

Marko honetan eta urtero bezala indarkeria hau salatzekeo testua onartzeko prozedura martxan jarri da.

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du:

Bozketa

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (PNV 3, EA 1, PSE-EE(PSOE)3)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako hurrengo puntuaren berri eman du:

3.Alkatetza Dekretuaren bidez onartutako kreditu aldaketen berri ematea.

Abenduaren 19ko 21/2003 Foruko arauak 27.3 artikulua dioenez, Gipuzkoako entitate lokalen aurrekontuak, Aurrekontuen aldaketen berri ematea arautzen du.

2009-10-22ko bilkuran kreditu gehigarrien onarpenaren berri eman zen.

Kreditu Transferentziak eta Kreditu Gaitzeak onartu direla jakinarazi da orain.

Kreditu transferentziak

Zenbakia	Dekretu zenb.	Zenbatekoa
1	499	607,83
2	573	14.500,00
3	582	2.000,00
4	733	200,00
5	784	40.609,03
6	931	225.185,00

Kreditu gaitzeak

Zenbakia	Dekretu zenb.	Zenbatekoa
1	139	808.305,51
2	183	1.652.000,00
3	638	474.453,43
4	697	1.664,83
5	704	112.551,97
6	715	77.316,00
7	779	26.225,50
8	922	21.089,63

Alkate jauna.

Oso bilkurarako Gaien Batzordean Alkatetzak kreditu aldaketa desberdinentzat onartutako dekretuen berri eman zutela jakinarazi du.

Dubreuil jauna

Aldaketarik handiena etxez etxeko laguntza zerbitzu programa dagokiola azaldu du, urte hasieran etxez etxeko laguntzarako diru-laguntzak zeudelako eta urte erdialdean zerbitzua Udalak enpresa pribatu bati esleitu zion.

Osoko bilkura jakinaren gainean dago.

Segidan eguneko aztergaien hurrengo puntuaren berri eman du Alkateak

4.2009-1010 ikasturtean euskara ikasteagatik diru-laguntzak emateko oinarrien hasierako onarpena.

Proposamena

7/85 Legearen 25 artikulua, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, udalerriek bere eskumenen barruan herritarren beharrak aseko dituen ekintza eta zerbitzu publikoak sustatzeko eskubidea dute.

Lege honen 28 artikulua udalerriei Administrazio publikoari dagozkion ekintzez gain bestelako ekintza osagarriak antolatzeke eskumena ematen die, eta batez ere hezkuntza eta kulturari dagozkionak.

Herritarren behar eta xedeak asetzeko, udalerririk baliabide desberdinak ditu, horietako bat diru-laguntzen bidez sustapen lana egitea da.

Administrazio Publikoek ematen dituzten diru-laguntzen araubide juridikoak azaroaren 17ko 38/2003 Legeak arautzen du, Diru-laguntzen lege orokorrak.

Aipatutako Legearen 17.2 artikulua herri entitateen diru-laguntzen oinarri arautzaileak ordenantza baten bidez onartu behar direla ezartzen du.

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikulua zehazten duenaren arabera, Udalari dagokio ordenantzak onartzea.

49 artikulua jartzen duenaren arabera, tokiko Ordenantzen onarpenak honako prozedura jarraitu beharko du:

- a) Osoko bilkuraren hasierako onarpena.
- b) Jende aurreko informazioa eta interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko hogeita hamar eguneko gutxieneko epea ematea.
- c) Epe horretan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunen ebazpena eta osoko bilkuraren behin betiko onarpena.

Erreklamaziorik edo iradokizunik ez balego, akordioa behin-behineko izatetik behin betiko izatera pasako da.

Azalduetakoa ikusita, honakoa proposatzen da

AKORDIO PROIEKTUA

1.2009-2010 ikasturtean euskara ikasteagatik diru-laguntzak emateko oinarrien hasierako onarpena.

2.Ordenantza Fiskalen aldaketa jendaurrera zabaltzea Iragarki taulan edo Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko iragarki bidez 30 eguneko epean, interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera emateko, Udalak ebatziko dituenak. Erreklamaziorik ez balego, akordio berririk gabe Ordenantzak behin betiko onartuko dira.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Idazkari andrea

Pasa den ikasturteko oinarriekiko dauden desberdintasunak azaldu ditu. Onuradunei eskatzen zaizkien konpromisoak azpimarratu ditu. Aprobetxamenduari jarraipen handiagoa egingo zaio.

Gehienak langabezian daude eta laguntza handiagoa jasoko dute baina jarraipen handiagoa egingo zaie.

Azaldu du orain arte inor ez dela laguntzarik gabe geratu.

Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du:

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 3, EA 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.

Segidan eguneko aztergaien hurrengo puntuaren berri eman du Alkateak

5.Ordiziako AASSetako 12 UPABI HIEko aldaketa puntualaren hasierako onarpena.

Proposamena

“12-UPABI” Hirigintza Interbentzio Eremuan plangintzako Arau Subsidiarioetako Elementuen Aldaketarako espedientearen berri eman da, Arizmendi Unzueta Estudioak egindako eta Udalak sustatutako agiriaren arabera.

Azaroaren 13 eta 12ko Udal Idazkariaren eta arkitektoaren txostenak aztertu ondoren, eta azaroaren 13ko Obra eta Hirigintza Delegazioaren irizpena kontuan izanda, Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeak honakoa proposatzen du:

AKORDIO PROIEKTUA

1. “12- UPABI” Hiren udal Plangintzako Arau Subsidiarioen elementuen aldaketa behin-behinean onartzea, 2009ko azaroaren 12ko txosten teknikoan zehaztutako gabeziak konpondu eta gero.

2. Espedientea jendurrean zabaltzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, iragarki taulan eta hedadura handieneko egunkari batean iragarki bat jarrita azkeneko iragarkia atera eta hilabetera, epe honetan edozeinek espedientea aztertu eta egoki iruditzen zaizkion alegazioak egin ahal izango ditu.

3. Foru Aldundiko Errepide Sailera, Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako Uren Lurralde Zerbitzura eta ADIFera bidali beharreko txostenak bidali.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Osoa

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jauna.

Sail hau aurrera atera nahian 2 edo hiru urte daramagula jakinarazi du. Proposatutako aldaketak inguruaren eraikigarritasuna asko hazten du. Onartu eta gero sektoreko organoei (ADIF, Errepide eta Urak) jakinaraziko zaie eta espedientea jendurrean zabalduko da hilabeteko epean.

Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du:

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 3, EA 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.

Segidan eguneko aztergaien hurrengo puntuaren berri eman du Alkateak

6.21 "AGARRE" HIEko Plan Partzialaren hasierako onarpenaren berri ematea.

Alkate jauna.

Plan partzialaren hasierako onarpena Alkatetzari dagokiola azaldu du baina agiriaren garrantzia kontuan izanda aurretik Osoko bilkuran horren berri eman nahi izan duela azaldu du.

Aldaketa honek Ordiziarentzako eta CAFentzako (non I+D+I gune teknologikoaren barnean dagoen) hirigintza arloko garapen handia ekarriko du.

Osoko bilkura jakinaren gainean dago.

Segidan eguneko aztergaien hurrengo puntuaren berri eman du Alkateak

7. Maialen Galparsorok karguari uko egitea, jakinarazpena.

EB/BERDEAK/ARALAREk aurkeztutako 2009ko urriaren 13ko idatziaren berri ematen da, Maialen Galparsoro Odriozolak Udal honetako zinegotzi karguari uko egiten diola adierazten duena.

Jon Ayestaran Aranburu jaunak, Marisol Viana Alvarez andreak eta Koldo Azurmendi Ayerbek zerrendako 6,7 eta 8 zenbakiei uko egin dietela ere jakinarazten da.

Alderdi politikoak 2007ko udal hauteskundeetan egindako zinegotzi akta kontuan hartuta Julian Carrasco Obregón jauna proposatzen da kargurako.

AKORDIO PROIEKTUA

Osoko Bilkurari MAIALEN GALPARSORO ODRIOZOLA andreak zinegotzi karguari uko egiten diola jakinaraztea eta Jon Ayestaran Aranburu jaunak, Marisol Viana Alvarez andreak eta Koldo Azurmendi Ayerbe jaunak ere uko egiten diotela jakinaraztea.

JULIAN CARRASCO OBREGON jauna EB/BERDEAK/ARALAR alderditik Udal honetako zinegotzi izendatzeko proposamena egitea,

Honako erabakia Hauteskunde Batzorde orokorrera bidali proposatutako hautagaiaren izendapena egin dezan.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jauna.

Maialen Galparsorok formalki karguari uko egin diola jakinarazi du eta Julian Carrascoren izendapen proposamenaren berri eman du.

Dubreuil jauna

Idazkariari zein prozedura jarraitu den galdetu dio.

Idazkari andrea

Prozedura zein izan den azaldu dio eta Hauteskunde Batzorde Nagusiari egindako kontsultak.

Osoko Bilkurak ukapenaren eta zerrendako 9.aren izendapen proposamenaren berri izan du.

Orain Hauteskunde Batzorde Nagusiaren bidez bideratu behar da prozedura zinegotzi berriak bere kargua eskuratzeko.

Segidan eguneko aztergaien hurrengo puntuaren berri eman du Alkateak

10. Galde-eskeak

Entzule batek, HIE"12-UPABI"ko lursail bateko jabeak espedientearen tramitazioa nola doan galdetu du eta errepidearen urbanizazio faseak zertan diren jakin nahi izan du. Kuartelera igotzeko bidean lursail dezente ukitu gabe utzi daitekeela uste du eta bertako egoera hobetu daitekeela uste du.

Alkate jaunak ekarpena eskertu eta aztertuko dutela esan dio.

Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak osoko bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta bik behin-behineko Idazkariak egiaztatzen dut.